



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARTE
EDERREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE BELLAS
ARTES

Arte Ederren
Fakultatea

PLAN ESTRATEGIKOA 2025-2028

www.ehu.eus/arte-ederren-fakultatea



AURKIBIDEA

01 Aurrekariak	4
-----------------------	----------

02 Metodologia	8
-----------------------	----------

03 Egitekoa, ikuspegia eta balioak	10
---	-----------

04 Zeharkako ardatzak	12
------------------------------	-----------

05 Ardatz estrategikoak	14
--------------------------------	-----------

5.1. Prestakuntza ardatza

5.2. Ikerketa eta transferentzia ardatza

5.3. Sistema artistikoa, kultura eta gizartea ardatza

5.4. Pertsonak eta komunitatea ardatza

5.5. Gobernantza eta baliabideak ardatza

06 Eranskina	33
---------------------	-----------

01. AURREKARIAK



Aurrekariak

UPV/EHUk Plan Estrategiko bat onartu zuen 2022-2025 aldirako. Erakundeko ikastegi eta fakultate guztien erreferentziazko dokumentua izan da hori beren garapen estrategikorako. 2024ko azaroan, erakundeko errektoregorako hauteskundeak egin ziren, eta Jose Ramon Bengoetxea buru zuen talde berria nagusitu zitzaion Eva Ferreirari, aurreko agintaldiaren ondoren berriro hautatua izatea bilatzen zuenari.

Suposatzen da 2025eko urtarrilaren amaieran UPV/EHUko zuzendaritzan sartu den errektore talde berriak helburu estrategiko berriak formulatuko dituela eta komunitate akademiko osoa helburu horiek lortzera bideratu dadin saiaturiko dela. 2025a trantsiziorako unea den arren, Arte Ederren Fakultatea (aurrerantzean, FBBAA-AAEEF) 2023. urteaz geroztik ari da ondorengo planean zehazten den hausnarketa estrategikoa egiten.

FBBAA-AAEEFren I. Plan Estrategikoa da. Hala ere, horren aurretik, ikastegiak hausnarketa estrategiko sakona egin zuen 2016-2018 urteen artean, Arantza Lauzirika dekanoren garaian. Ikastegiak 2014. eta 2017. urteen artean lortutako helburuak berrikusi ziren, ikastegiaren KBBSren eskuliburuan (Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema) adierazitakoan oinarrituta, eta AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak) azterketa sakona egin zen. Une hartan, ordea, hura ez zen plan estrategiko batean gauzatu.

Ismael Manterola buru zuen dekanoren taldea 2022ko ekaina eta uztaila bitartean sartu zen ikastegiko zuzendaritzan. Aurreko taldearen azterketa estrategikoa erreferentziaz hartuta,

2023an hausnarketa estrategiko bati ekin zion, ondorengo iturri eta jardueretan oinarrituta, eta, horien bidez, ikastegi barruko eta kanpoko interes taldeen iritzia jaso da:

01

Ikastegiko dekanoren taldearen eta kudeaketa taldearen diagnosia (ikastegiko administratzailea eta teknikaria).

02

Fakultateko Kalitate Batzordeak egindako jarraipena.

03

Fakultateko graduatan eta enplegatzailerekin garatutako foku taldeak, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetan.

04

Fakultateko titulazioei buruzko ikasleen gogobetetze inkestak.

Sarrera

Dokumentu hau UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko lehenengo Plan Estrategikoa da. Urteetan zehar ikastegiaren ezaugarri izan diren kalitatean eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa finkatzen du.

UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoa eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen 2022-2026 Plan Estrategikoa erabili dira egiturazko erreferentzia gisa. Horietan lehena erreferentziazko esparrua izan da komunitate akademikoarentzat azken urteotan, eta, era berean, beste ibilbide orri hauetan ere hedatu da:

• **Euskararen IV. Plan Gidaria(2023-2027):** <https://www.ehu.eus/documents/2660428/50164912/Euskararen-IV-plan-gidaria-2023-2027.pdf/3026c261-dd9b-d88d-a60a-a54d82f51b03?t=1729847101312>

• **Graduondoko Ikasketen II. Plan Estrategikoa (2023-2026):** <https://www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak/graduondoko-ikasketen-ii-plan-estrategikoa-2023-2026>

• **UPV/EHUren nazioartekotze plan estrategikoa (2023-2026):** <https://www.ehu.eus/documents/2099535/12433190/UPV-EHU-Prestakuntza-nazioartekotzeko-plana-2023-2026.pdf/108ccfa6-b64a-3286-16f5-5ecd70c0b4ab?t=1718605257644>

• **UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Plana:** https://www.ehu.eus/documents/26241136/0/UPVEHU_Plan+Participaci%C3%B3n_Final_EUS+%281%29.pdf/29f9493f-8cae-3b83-26c8-938dc1b8d08b?t=1747388783630

• **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2024-2028):** <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/berdintasun-plana-2024-2028>

Erreferente horiek kontuan hartuta eta autodiagnosirako eta posizioa hartzeko ariketa bat eginez, FBBAA-AAEEFk bere Plan Estrategikoa egin du, UPV/EHU bertan, sistema artistikoan eta gizartean kokatzeko, ikastegiaren etengabeko hobekuntzan lagunduko duen estrategia propio batekin.

Erreferente horiek kontuan hartuta eta autodiagnosirako eta posizioa hartzeko ariketa bat eginez, FBBAA-AAEEFk bere Plan Estrategikoa egin du, UPV/EHU bertan, sistema artistikoan eta gizartean kokatzeko, ikastegiaren etengabeko hobekuntzan lagunduko duen estrategia propio batekin.

Dokumentu honetan, lehenik eta behin, plan estrategikoa egiteko erabili den metodologia jasotzen da. Bigarren, erreferentzia gisa erabili diren informazio iturriak. Hirugarren, ikastegiaren egitekoa, ikuspegia eta balioak birformulatu dira. Jarraian, planaren ardatz estrategikoak eta zeharkakoak agertzen dira laburbilduta, diseinatu diren helburu nagusiekin batera. Azkenik, planaren helburuak, ekintzak eta jarraipen adierazleak azaltzen dira. Helburu estrategiko bakoitza fakultateak mugatutako zeharkako ardatzekin lotu da, horien trazabilitateari jarraipena egin ahal izateko.

Funtsezkoa da, halaber, plan estrategikoan errepikatzen den gai terminologiko bat argitzea, idazketa sinplifikatu bat proposatzeko beharrari erantzuten diona: dokumentuan zehar "arte irakaskuntzez" edo "ikerketak artistikoaz" hitz egiten denean, ikastegiaren irakaskuntzak eta jarduerak biltzen dituen diziplinak laburbildu eta bildu nahi dira (kultura ondasunen kontserbazioa eta zaharberritzea, diseinua, praktika, artearen teoria eta historia adierazpen anitzetan...).



02. METODOLOGIA

Metodologia

FBBA-AAEEFko dekano taldeak bideratu du gogoeta estrategikoa, eta hainbat interes talderen ordezkarien laguntza izan du zeregin horretan. Hasiera batean, **honako jarduera eta egitura hauek** baliatu dira:

01

Fakultateko Kalitate Batzordeak, sailetako, ikastegiko TEKAZELeko, gradu koordinatorak eta ikastegiko masterretako arduradunak ordezkatzen dituzten IRIekin batera, ikastegiko irakasleak ordezkatu ditu prozesuan. Organo horrek titulazioen urteko jarraipen txostenak eta ikastegiaren gestiorako urteko plana babestu ditu.

02

2022-2023 ikasturtean hiru gradu eta ikasleekin Kalitate Dekanordetzak garatutako foku taldeak.

03


Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzak 2023/2024 ikasturtean enplegatzaileekin garatutako foku taldeak ateratako informazioa.

04

Hausnarketaren garapenean, UPV/EHUko Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuak (SCEI/KEIZ) babesa eman du eta jarraipena egin du.

Planaren adierazleen jarraipena titulazioen urteko jarraipenarekin eta ikastegiaren urteko kudeaketa planarekin modu koherentean egin dadin, plan estrategikoa ikasturtez ikasturte edo epe akademikoetan azalduko da, eta ez urte naturaletan oinarrituta: hasierako aldia **2025/2026** ikasturtea izango da eta amaierakoa **2027/2028** ikasturtea.

Dokumentu honen diseinua Clara Cabanillas Victoriak egin du, Arte Ederren Fakultateko Sorkuntza eta Diseinuko graduatua. Ikastetxearentzat funtzezkoa da bere ikasleek, prestakuntza jaso ondoren, bere lan-jardueran duen profesionaltasuna zabaltzea.

The background of the page is a blurred photograph of a classroom. Several students are visible, some sitting at desks and others standing. The focus is on the text overlay in the foreground.

03. EGITEKOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Egitekoa

- Ezagutza sortzea, garatzea eta transmititzea arteekin lotutako arloetan.
- Ekimena, sormena, espiritu kritikoa eta eskainitako ikasketen jakintza arloekin lotutako gaiak aztertzeko eta ebazteko gaitasuna duten profesionalen prestakuntza integrala arteen arloan.

Balioak

- Sormena, ekimena eta berrikuntza
- Espiritu kritikoa eta pentsamendu gogoetatsua
- Malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna
- Konpromisoa eta osotasuna
- Erantzunkidetasuna eta kide izatearen sentimendua
- Gardentasuna eta hurbiltasuna
- Sentsibiltatea eta bitartekaritzarako bokazioa

Ikuspegia

FAKULTATEAK HONAKO HAUEN AINTZATESPENA LORTU NAHI DU...

Ikasleena

sorkuntza artistikoan, diseinuan eta kultura ondasunen kontserbazioan eta zaharberritzean prestakuntza jasotzeko ikastegi bikaina izateagatik.

IRI/TEKAZELena

beren lana behar bezala garatu ahal izateko eta pertsonalki eta profesionalki aurrera egiteko aukera ematen duen ikastegia izateagatik.

Enplegatzaileena

irakaskuntzaren kalitateagatik, profesionalen prestakuntzagatik eta artearen sorkuntzan eta ikerketan eta horren kontserbazioan erreferentziazko ikastegia izateagatik.

Komunitate artistikoarena eta gizartearena

izen oneko ikastegia izateagatik, komunitate artistikoa eta kulturala dinamizatzen duena —ezinbestekoa hori elikatzeke, dinamizatzeko eta berritzeko—, euskararekin eta euskal sistema artistikoa eta estatuko gainerakoa aberastearekin konpromisoa duena.

UPV/EHUrena eta beste unibertsitate batzuena

erreferentziazkoa izateagatik arteari buruzko sorkuntza eta ikerketan eta artearen kontserbazioan, emaitzen hedapenean eta ikerketa-sorkuntza modalitate berrien garapenean.

Zientzia eta ikerketa komunitatearena

bere ikerketa jardueraren kalitateagatik eta ikerketa emaitzen zabalkundeagatik.



04. ZEHARKAKO ARDATZAK

Zeharkako ardatzak



EUSKARA




**GJH, GENERO BERDINTASUNA,
LGTBIAQ+, DIBERTSITATE
FUNTZIONALA**




**BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA**



NAZIOARTEKOTZEA



**BALIABIDEAK ETA
AZPIEGITURAK**



KOMUNIKAZIOA

A close-up photograph of a person with long brown hair and glasses, wearing a plaid shirt, painting a white ceramic object with a brush. The person is holding the object with their left hand and painting it with their right hand. The background is blurred, showing a white chair and a white wall.

05. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Prestakuntza ardatza



01. HELBURUA

Graduko eskaintzaren hobekuntza.

Adierazlea

1.1.: Berritutako edo aldatzeko prozesuan dagoen gradu kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak

Ekintzak

01

Graduko eskaintza eskaera profesionalera eta sozialera egokitzeari buruz hausnarketa egitea.

02


Graduak erreformatzeko proposamenak garatzea, 822/2021 Errege Dekretuaren jarraibideak kontuan hartuta.



EUSKARA



GJH, GENERO
BERDINTASUNA,
LGTBIAQ+, DIBERTSITATE
FUNTZIONALA



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



NAZIOARTEKOTZEA

02. HELBURUA

Graduondoko eskaintzaren optimizazioa.

Adierazleak

1.2.1.: Masterrak hobetzeko izapidetutako ekintzen kopurua.

1.2.2.: Sortzen ari diren etengabeko prestakuntzako titulu kopurua.


Lotura duten zeharkako ardatzak



EUSKARA



GJH, GERO
BERDINTASUNA,
LGTBIAQ+, DIBERTSITATE
FUNTZIONALA



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



NAZIOARTEKOTZEA

Ekintzak

01

Graduondoko eskaintzaren diagnostika egitea eta horren gaurkotasuna, erakargarritasuna eta jasangarritasuna bermatzeko proposamenak garatzea.

02

Etengabeko prestakuntza independentea edo graduondoko eskaintzarekin lotutakoa eskaintzeko aukerak aztertzea.

03. HELBURUA


Arte Ederren Fakultatea euskal prestakuntza-sisteman diziplina artistikoen erreferentziatzeko prestakuntza-ikastegi gisa finkatzea

Adierazleak

1.3.1.: Ikastegiak parte hartzen dueneko IAZren jarduera kopurua.

1.3.2.: Unibertsitate orientaziorako bisitatutako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe kopurua.


Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



EUSKARA



KOMUNIKAZIOA

Ekintzak

01

Fakultateko prestakuntza-eskaintzaren kalitatea aldarrikatzea, arte-ikasketen goi-mailako eskola publiko eta pribatuen lehiaren aurrean.

02

Tokiko eta estatuko aldarrikapenetan aktiboki parte hartzea, unibertsitateko arte-ikasketen balioa nabarmentzeko.

04. HELBURUA

Koordinazioaren kultura lantzea.


Adierazlea

1.4.: Ikastegiak koordinaziorako ezarritako bi asteetan bildutako guztizko akta kopurua.


Lotura duten zeharkako ardatzak



EUSKARA



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



KOMUNIKAZIOA


05. HELBURUA

Curriculumetik kanpoko jardueraren balioa nabarmentzea eta hobetzea.

Adierazlea

1.5.: Ikastegiak antolatutako dibulgazioko eta hausnarketa artistikoko jarduera osagarrien kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



KOMUNIKAZIOA

Ekintzak

01

Ikastegiaren koordinazio-egitura finkatzea, irakasgaiaren, ikasturtearen, bertikalaren eta titulazioaren koordinazioak azpimarratzeko (baita etorkizunean egitura hobetzeko sor daitezkeen beste figura batzuk ere).

02

Ikasturte bakoitzean koordinaziorako bi aste sustatzea, irakaskuntzatik salbuetsita, aldi horietan koordinazioari lehentasuna ematea bermatzeko.

Ekintzak

01

Prestakuntza jarduera eta hausnarketa artistikoko jarduera osagarriak sustatzea (hitzaldiak, tailerrak, artista gonbidatuak, prestakuntza ikastaroak, prestakuntza txangoak, museoetara eta erakusketetara bisitak eta abar).

02

Kanpoko praktikaldi boluntarioen eskaintza finkatzea eta hobetzea.

03

Ikasleentzat interesgarriak diren artista, erakunde eta/edo enprekin praktiketarako hitzarmenak sinatzea erraztea.

04

Ikasleek ikastegian garatu nahi duten sormenezko eta kultura sustatzeko edozein ekimen bultzatzea.


06. HELBURUA

Ikasleen enplegarritasuna hobetzea.

Adierazlea

1.6.: Garatutako foku talde kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



KOMUNIKAZIOA

Ekintzak

01

Aldian behin enplegatzailerekin FOCUS GROUP egitea, prestakuntza eskaintza enplegarritasunaren benetako eskarira egokitzeko.

02

Praktiketako enplegatzailerekin ikastegiko ikasleekin egindako praktikei buruzko inkesta bete dezaten sustatzea.

07. HELBURUA

Bultzada nazioartekotzeari irakaskuntzan eta ikerketa lanean.

Adierazleak

1.7.1.: Mugikortasun programetan parte hartzen duen IRI eta TEKAZELeko pertsona kopurua.

1.7.2.: Tutoretza partekatuko tesien kopurua.

1.7.3.: Nazioarteko tesien kopurua.

1.7.4.: English Friendly Courses irakasgaien kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



KOMUNIKAZIOA



NAZIOARTEKOTZEA

Ekintzak

01

Ikasle, IRI eta TEKAZELe mugikortasun programetan parte har dezaten sustatzea (informazio bilerak egitea, komunikazioa hobetzea...).

02

Ingeleseko eta English Friendly irakasgaiak sustatzea ikastegian.

08. HELBURUA


Irakaskuntza berrikuntza.

Adierazleak

1.8.1.: Kalitate Batzordetik igarotako hezkuntza berrikuntzarako proiektu kopurua.

1.8.2.: Docentiaz programan ebaluazio positiboa duten irakasleen ehunekoa.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



KOMUNIKAZIOA


09. HELBURUA

Bultzada euskarari irakaskuntza eta ikerketa lanean.

Adierazlea

1.9.: Euskaraz eskainitako hautazko kredituen ehunekoa hautazkoen aukera guztiari dagokionez.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



EUSKARA

Ekintzak

01

IRIen partaidetza sustatzea SAE/HELAZek, UPV/EHUko Destaigasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak edo ikastegiak berak eskainitako ikastaroetan.

02

IRIak Docentiaz deialdian parte har dezan sustatzea.

03

Hezkuntza berrikuntzarako proiektuen deialdiak sustatzea eta IRIek parte hartzea bultzatzea.

Ekintzak

01

Gratu guztietan nahitaezko prestakuntza eskaintza osoa euskaraz dagoela bermatzea.

02

Unibertsitateko gradu bati dagokion euskara maila bermatzea ikasleengan.

03

IRI eta TEKAZELeke langileen bertaratzea sustatzea euskara hobetzeko ikastaroetan.

04

Bultzada irakaskuntza materialak euskaraz sortu eta argitaratzeari.

05

Bultzada euskara komunikazio instituzionalean egunerokotasunez erabiltzeari (posta elektronikoa, bilerak, Ikastegiko Batzarra eta abar) eta jarduera espezifikoak euskaraz antolatuta (hitzaldiak, tailerrak eta abar).

10. HELBURUA

Sistema kritiko eta propioa bultzatzea ikastegiko jasagarritasuna sustatzeko.

Adierazlea

1.10.: GJHen garapenerako fakultateko lantaldearen ekintza kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



GJH, GENERO
BERDINTASUNA,
LGTBIAQ+, DIBERTSITATE
FUNTZIONALA

Ekintzak

01

GJHei eta fakultatea horiekin lerrokatzeari buruzko hausnarketa kritiko kolektibo propioa egitea.

02

Lantalde egonkor bat sortzea fakultatean GJHen garapena babesteko eta graduako eta masterreko irakaskuntzarako material lagungarria sortzea eta zabaltzea. Horren lana ikastegiko batzorde egonkorretako batekin lotzea.

03

Jasagarritasuna eta ingurumenaren zaintza sustatzeko plan propioa diseinatzea.

Ikerketa eta transferentzia ardatza



01. HELBURUA

Ikertalde berriak bultzatzea, eta ikertzaile berriei pizgarriak ematea, ikertzaile ibilbidearen eredu bat bultzatuz.

Adierazleak

2.1.1: Ikastegian aktibo dauden ikertaldeen kopurua.


2.1.2.: Ikertaldeetan edo ikerketa proiektuetan parte hartzen duen IRI kopurua.

2.1.3: Ikastegiko ikerketako bekadunen kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



BALIABIDEAK ETA
AZPIEGITURAK

Ekintzak

01

Fakultateko ikertaldeek eta ikastegi parte hartzaileko IRlek ikertaldeetan eta ikerketa proiektuetan egindako lana ezagutzera ematea.

02

Master eta doktorego ikasleak ikastegiko ikertaldeekin konektatzeko ekintzak eta jarduerak garatzea.

03

Ikastegiko ikerketa lana erraztea baliabideak eta azpiegiturak egokituta, ikertaldeen premiei erantzuteko.

02. HELBURUA

Komunitate zientifikoaren barruan ikerketa artistikoa eta horren espezifikotasuna aldarrikatzea, baita hori gauzatzeko formatuak ere.


Adierazlea

2.2.: Ikasturte bakoitzean argitaratutako Ausart aldizkariaren ale kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



BALIABIDEAK ETA
AZPIEGITURAK

Ekintzak

01

Estaldura administratiboa eta baliabideak ematea ikastegiko aldizkari zientifikoari (Ausart) eusteko.

02

Artearen arloko ikerketaren ezaugarriak zabaltzea UPV/EHUn eta estatuko eta nazioarteko unibertsitateko gainerako kideen artean.

03. HELBURUA

Ikerketa artistikoaren buruizatea EAEn.

Adierazlea

2.3.: Ikastegian irakurritako tesi kopurua guztira.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



EUSKARA



NAZIOARTEKOTZEA

Ekintzak

01

Ikerketa Arte Garaikidean Doktoregoaren kalitatea bermatzea.

02

Ikerketa artistikoaren espezifikotasuna zabaltzea eta horren garapenerako bide berriak sustatzea.

04. HELBURUA

Ekintzailletza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea.

Adierazlea

2.4.: Sailek izapidetutako transferentzia kontratuen kopurua (Euskoiker, ITRB eta abar).

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



GJH, GENERO
BERDINTASUNA,
LGTBIAQ+, DIBERTSITATE
FUNTZIONALA

Ekintzak

01

Ikastegiko IRien partaidetza bultzatzea eta zabaltzea ekintzailletza eta transferentzia proiektuetan.

05. HELBURUA


Kanpoko aliantzak indartzea, tokikoak, estatukoak nahiz nazioartekoak.

Adierazleak

2.5.1.: Arte Ederretako dekanoen konferentzia nazionalen kopurua, zeinetara bertaratu baitiren ikastegiko ordezkariak.

2.5.2.: Dekano taldeko kideek erakunde publiko eta pribatuekin egindako bileren kopurua.


Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



NAZIOARTEKOTZEA



BALIABIDEAK ETA
AZPIEGITURAK

Ekintzak

01

Espainiako Arte Ederren Fakultateetako dekanoen konferentzia nazionaletara joatea eta horietan aktiboki parte hartzea.

02

Tokian tokikoaren eta estatukoaren eta nazioartekoaren arteko oreka sustatzea, baita espezifikoa eta diziiplina anitzekoa denaren artekoa ere, ikertaldeetan.

06. HELBURUA

Ekintzak

Euskaraz eginiko ikerketa sustatzea, eta beste hizkuntza batzuetan egindakoak euskaraz zabaltzen eta egokitzen laguntzea.

01

Euskaraz eginiko GRALak, MALak eta doktorego tesiak ezagutzera ematea.


Adierazleak

2.6.1.: Ikastegian euskaraz irakurritako GRAL kopurua.

2.6.2.: Ikastegian euskaraz irakurritako MAL kopurua.

2.6.3.: Ikastegian euskaraz irakurritako doktorego tesi kopurua.


Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



EUSKARA



KOMUNIKAZIOA

Sistema artistikoa, kultura eta gizartea ardatza



01. HELBURUA

Sistema artistikoko eragileekin proiektuak eta lankidetzak hitzarmenak egitea ahalbidetzea.

Adierazleak


3.1.1.: Aktibo dauden unibertsitate-enpresa ikasgelen kopurua.

3.1.2.: Sistema artistikoko erakundeekin eta eragileekin batera egindako deialdi kopurua.


Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



BALIABIDEAK ETA
AZPIEGITURAK



KOMUNIKAZIOA

Ekintzak

01

Unibertsitate-enpresa ikasgelak sor daitezen bultzatzea euskal sistema artistikoko kideekin.

02

Sistema artistikoko erakundeekin eta eragileekin batera egindako deialdi kopurua zenbatzea.

02. HELBURUA

Gizartearekiko komunikazioa hobetzea, Arte Ederren Fakultatearen jardura guztien balioa nabarmentze aldera, euskal gizartearen kultura aberasten duen eragilea den aldetik.

Adierazleak

3.2.1.: Fakultateko informazio aldizkarira harpidetutako pertsona eta erakunde kopurua.

3.2.2.: Fakultateko sare sozialetara harpidetutako pertsona kopurua.


Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



EUSKARA



KOMUNIKAZIOA

Ekintzak

01

Komunikabideekin harreman estua izatea, Arte Ederren Fakultatearen jardura guztiak zabaltzen laguntzeko.

02

Fakultatearen eta unibertsitateko kideetatik at dauden pertsonen eta eragileen sailen blogerako harpidetza erraztea.

03

Fakultateko webgunea eta sare sozialak eguneratuta edukitzea.

03. HELBURUA

Eragile aktiboa izatea EAEko arte eta kultura sarean.

Adierazleak


3.3.1.: Fakultateak antolatutako edo fakultatearen laguntzarekin garatutako lehiaketa, deialdi eta txapelketa artistikoen kopurua.

3.3.2.: Fakultateko erakusketa gelan ikasturte bakoitzeko antolatutako erakusketa kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



BALIABIDEAK ETA
AZPIEGITURAK

Ekintzak


01

Jardura eta deialdi artistikoetan komisario, artista, historialari, arte kritikari, hizlari eta epaimahaikide gisa parte hartzen duten profesional espezializatuak (IRI) hornitzea.

02

Erakusketa artistiko interesgarriak bultzatzea ikastegiko erakusketa gelan.

Pertsonak eta komunitatea ardatza



01. HELBURUA

Lantaldearen belaunaldien arteko erreleboa eta langileen egonkortze goiztiarra bultzatzea.


Adierazleak

4.1.1.: Ikasturte bakoitzean irakasle laguntzaile doktore gisa kontratatutako pertsona kopurua.

4.1.2.: Ikasturte bakoitzean agregatu edo titular izatera igarotzen den pertsona kopurua.

4.1.3.: Lan kontratudun IRI eta TEKAZELen txanda kontratuen kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA

Ekintzak

01

UPV/EHUko erretiroko eta txanda kontratuko deialdiak ezagutzera ematea eta langileek deialdi horietan parte har dezaten sustatzea.

02

Masterreko ikasleek ikerketa ibilbidea has dezaten, doktorego tesia egin dezaten eta egiazta daitezen bultzatzea, irakasleen belaunaldien arteko erreleboa egon dadin.

02. HELBURUA

Ikasleen eginkizun aktiboa eta erantzunkidea bultzatzea ikaskuntza prozesuan, haien ongizate fisikoa eta emozionala sustatzea eta fakultateko kide izatearen sentimendua lantzea.

Adierazleak

4.2.1.: Ikasturte bakoitzean Entzute eta Erantzute Sarean artatutako ikasle kopurua.

4.2.2.: Ikasturte bakoitzean Entzute eta Erantzute Sarean parte hartzen duen IRI eta TEKAZEL kopurua.

4.2.3.: AZEn eta Harrera Jardunaldian parte hartu duen ikastegiko ikasle kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



GJH, GENERO
BERDINTASUNA,
LGTBIAQ+, DIBERTSITATE
FUNTZIONALA

Ekintzak

01

Ikastegiko Ikasleen Kontseiluarekin aldizkako eta noranzko biko komunikazioa izatea.

02

UPV/EHUko Entzute eta Erantzute Sarean aktiboki parte hartzea.

03

Ikasleek AZEetan eta BHietan parte har dezaten bultzatzea.

Gobernantza eta baliabideak ardatza



01. HELBURUA


Ikastegiari esleitutako baliabide ekonomikoak eraginkortasunez eta koherentziaz baliatzea .

Adierazleak


5.1.1.: Ikastegiaren aurrekontua, guztira, ikasturte bakoitzeko, aurreko ikasturteari dagokionez.

5.1.2.: Irakaskuntza Laborategien deialdiaren aurrekontua, guztira, aurreko urteari dagokionez.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



BALIABIDEAK ETA
AZPIEGITURAK

Ekintzak

01

Aldebiko komunikazio eraginkorra izatea interes talde guztiekin, ikastegiaren baliabide ekonomikoak koherentziaz planifikatzeko.

02

Ikastegiaren jarduera integrala eta funtzionamendurako aurrekontu nahikoaren beharra defendatzea UPV/EHUren Gerentzia Nagusiaren eta beste edozein kudeaketa organoren aurrean.

02. HELBURUA

Fakultate erabilgarri, bizigarri eta kultura aldetik aktiboa sortzen lagunduko duten azpiegitura egokiak sustatzea.


Adierazlea

5.2.: Ikastegian egindako obra txiki, ertain edo handien kopurua, ikasturte bakoitzeko.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



BALIABIDEAK ETA
AZPIEGITURAK

Ekintzak

01

Interes taldeen eskaerei erantzutea, ikastegiaren azpiegiturretan egin beharreko hobekuntzak planifikatzeko.

02

Azpiegiturak eraberritzea, instalazioen hobekuntza estetikoa, erabilgarritasuna eta koherentzia izanik xede.

03. HELBURUA

Euskara ikastegiko lan hizkuntza gisa indartzen jarraitzea.

Adierazlea

5.3.: Soilik gaztelaniaz egiten diren Ikastegiko Batzarren kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



KOMUNIKAZIOA



EUSKARA

Ekintzak

01

Euskararen presentzia sustatzea Ikastegiko Batzarretan zein ikastegiko batzordeetako edo koordinazioko bileretan.

02

Zuzendaritza Taldeak igorritako mezuak elebitan idazten direla bermatzea.

04. HELBURUA

Ikastegiko langileen lidergoa sustatzea, eta genero berdintasuna bultzatzea kudeaketako eta koordinazioko kargudunen jardunean

Adierazlea

5.4.: Emakumeen ehunekoa ikastegiko zuzendaritzako eta koordinazioko egituran.

Lotura duten zeharkako ardatzak



GJH, GENERO
BERDINTASUNA,
LGTBIAQ+, DIBERTSITATE
FUNTZIONALA

Ekintzak

01

Parekidetasunaren alde lan egitea ikastegian lidergoko edo koordinazioko kargudunen jardunean.

02

Prestakuntzako, ikerketako edo kudeaketako zeregin ororen jardunean iruzkin edo jokabide sexistarik ez dagoela bermatzea.

03

IRiek Akademen parte har dezaten sustatzea.

05. HELBURUA

Kalitate politika fintzea, finkatzea eta hedatzea.

Adierazleak


5.5.1.: Grado, master edo doktoregoetan egindako *focus group* jardueren kopurua.

5.5.2.: Kalitate Batzordeak egindako bilera kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



KOMUNIKAZIOA

Ekintzak

01

Plan estrategikoa egitea eta betetzen dela zaintzea.

02

Etengabeko hobekuntzak egitea KBBSan.

03

Ikastegiko interes taldeek *feedbacka* aldizka jaso dezaten sistematizatzea.

06. HELBURUA

Batzordeen aldizkako funtzionamendua aktibatzea.


Adierazleak

5.6.1.: Urtean bilera bat, gutxienez egin EZ duten ikastegiko batzordeen kopurua.

5.6.2.: Urtean bilera bat, gutxienez egin ez duten ikastegiko batzordeen bilera kopurua.

5.6.3.: JARDUN programaren barruan, ikastegiak duen Kreditu Poltsako kredituetatik Fakultateko batzordeen lana sustatzera bideratzen diren kredituen kopurua.

Lotura duten zeharkako ardatzak



BERRIKUNTZA ESTETIKOA,
LIDERGO INTELEKTUALA,
JARRERA KRITIKOA



KOMUNIKAZIOA

Ekintzak

01

Ikastegiko batzordeen aldizkako funtzionamendua aktibatzea.

02

Behar izanez gero, batzorde berriak sortzea.

03

Aktibo ez dauden batzordeak desagerraraztea.

04

Batzorde guztien deialdiak egitea, urten behin, gutxienez.

06. ERANSKINA

Eranskina

ITURRI ETA ERREFERENTZIAK

Fakultate mailan

AMIA analisia eta Arte Ederren Fakultateko 2016-2018 aldirako Plan Estrategikoaren zirriborroa (Arantza Lauzirika buru zuen dekanoren agintaldian egin).

Arte Ederren Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren eskuliburua.

UPV/EHU mailan

UPV/EHUren Plan Estrategikoa (2022-2025)	https://www.ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU_PLAN+ESTRATEGIKOA_2022_2025.pdf/16556f80-4045-8abc-443d-4c41bdeb1df4?t=1655464452913
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Plan Estrategikoa (2022-2026)	https://www.ehu.eus/es/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea/plan-estrategikoa
IV Plan director de Euskara (2023-2027)	https://www.ehu.eus/documents/1760370/41280844/plan_estrategico_2022_EU_FINAL_2.pdf/471caa7d-c97d-4130-7892-9f2838574669?t=1669627915851
Euskararen IV. Plan Gidaria (2023-2027)	https://www.ehu.eus/documents/2660428/50164912/Euskararen-IV-plan-gidaria-2023-2027.pdf/3026c261-dd9b-d88d-a60a-a54d82f51b03?t=1729847101312
Graduondoko Ikasketen II. Plan Estrategikoa (2023-2026)	https://www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak/graduondoko-ikasketen-ii-plan-estrategikoa-2023-2026
UPV/EHUren nazioartekotze plan estrategikoa (2023-2026)	https://www.ehu.eus/documents/2099535/12433190/UPV-EHU-Prestakuntza-nazioartekotzeko-plana-2023-2026.pdf/108ccfa6-b64a-3286-16f5-5ecd70c0b4ab?t=1718605257644

UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Plana	https://www.ehu.eus/documents/26241136/0/UPVEHU_Plan+Participaci%C3%B3n_Final_EUS+%281%29.pdf/29f9493f-8cae-3b83-26c8-938dc1b8d08b?t=1747388783630
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2024-2028)	https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/berdintasun-plana-2024-2028

Toki mailan

Esparru Estrategia Unibertsitateak + Euskadi Basque Country 2030. Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila	https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/unimas_euskadi_2030_estr/eu_def/adjuntos/estrategia_universidades_Euskadi_Basque_Country_2030_e.pdf
--	---

Estatu mailan

2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena	https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2023-7500
822/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, unibertsitate irakaskuntzen eta haien kalitatea ziurtatzeko prozeduraren antolamendua ezartzen duena	https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2021-15781

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARTE
EDERREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE BELLAS
ARTES

